



## Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketa araudia

### ARKU TIROA

#### 5.1. Parte hartzaileak

5.1.1. Eskola kirolean parte hartu ahal izango dute Arabako Foru Aldundiak berak 2017-2018rako kanpainarako jaulkitako parte-hartzaile txartela daukaten pertsona guztiek, Arabako Foru Aldundiaren eskola kiroleko plataforman behar bezala baliozkoturik badaude.

5.1.2. Salbuespen gisa, beste pertsona batzuek ere parte hartu ahal izango dute, zeinek bere lurralde historikoko eta autonomia erkidegoko eskola kirolaren barruan, aldez aurretik aurkezturik kirolariaren bizilekuko aldundi edo eskola kirolaren gaineko eskumena duen organoaren baimena. Dena den, Arabako Foru Aldundiak baimena eman beharko du.

5.1.3. Eskola kiroleko parte hartzaile guztiak, eta halaber kirolari, teknikari, epaile nahiz joko zelaiko langileak, jakinaren gainean daude eta baimena ematen dute Arabako Arku-tiroko Federazioak haien datu pertsonalak erabil ditzan (izena, deiturak, baimena, argazkiak, bideoak, klubaren datuak eta puntuazioak) bere web orrian eta zabalkunderako edo sustapenerako materialetan argitaratzeko, eta halaber haien harremanetarako datuak, beharrezkoa balitz, bakoitzarekin harremanetan jartzeko. Eskubidea izango dute, hala ere, datuetara sarbide doakoa izateko, haiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo haien aurka egiteko; horretarako, e-maila bat bidali beharko dute, datu horien titular direla egiaztatuz eta baliatu nahi diren eskubideak adieraziz, honako helbidera: [info@fataatf.org](mailto:info@fataatf.org).

5.1.4. Adingabeen babes juridikoari buruzko Legeak (1/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa, zeinaren bidez Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatu ere egiten baitira, geroago 26/2015 Legeak eta 45/2015 Legeak aldatua) dio ezen eskola kiroleko kanpainan parte hartuko duten klubek, adingabeekin zerikusia duten ekitaldiak edo jarduerak antolatzen dituzten entitate gisa, Arabako Arku-tiroko Federazioaren esku utzi beharko dituztela Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtapenak, edo, bestela, data eta sinadurarekin aurkeztu ziurtagiri horiek bere esku dituelako zinpeko adierazpen eguneratua, Arabako Federazioaren Eskola Kiroleko programako 1. eranskinean ageri dena.

Baldintza hori bete behar du adingabeekin tratua duen edozein pertsonak, hala nola kidego tekniko, epaile, zuzendaritzako kide eta ekitaldien antolatzaileek eta abarrek.

5.1.1. Klubak hautatzen badu Arabako Federazioaren eskola kiroleko programaren 1. eranskineko zinpeko adierazpena aurkeztea, Arabako Arku-tiroko Federazioak edozein unetan egiaztatu ahal izango du, aldez aurretik abisua eman beharrik gabe, klubak bere esku ote dauzkan ziurtagiri horiek.

## 5.2. Jarduera antolatzea

5.2.1. irabazteko xederik gabeko entitate batek edo hainbatek antolatuko dute jarduera, eta Arabako Arku-tiroko Federazioan eta Arabako Foru Aldundiaren Eskola Kiroleko 2017-2018 kanpainarako programan izena emanda egon beharko dute.

5.2.2. Adituko da, besterik ezean, Eskola Kiroleko kanpainan izena emanda dauden pertsona guztiek parte hartzen dutela. Eta jarduera huts egin behar izanez gero, jarduera gauzatu aurreko osteguneko 20.00ak baino lehen jakinarazi beharko da.

5.2.3. Liga bat hasten denean, kategoria eta modalitate batean hasi eta kategoria eta modalitate horretan bertan amaituko da.

5.2.4. Federazioak, aurreko ostiralean, jardueraren eta parte hartzaileen berri igorriko die jarduera antolatu behar duen entitateari edo entitateei, eta jarduera antolatzen duen klubak ituak esleitzeko zozketa egin beharko du, bai eta puntuazio orriak argitaratu ere.

5.2.5. Arabako Federazioko epaileen batzordeak pertsona bat edo hainbat izendatuko ditu bere kideen artean, lehiaketa behar bezala gauza dadin.

5.2.6. Eskola kiroleko epaile bat jardun ahal izango da lehiaketa-zain, betiere Arabako Arku-tiroko Federazioak jaulkitako sinestamendua badauka.

5.2.7. Hamabost (15) lagunek baino gehiagok parte hartzen duten lehiaketetan, epaile bat eta tiro zuzendari bat (Tz) izan beharko dira. Tiro zuzendariak ez du zertan eduki dagokion titulaziorik.

5.2.8. Hogeita hamar (30) lagunek baino gehiagok parte hartzen duten lehiaketetan, epaile bi eta tiro zuzendari bat (Tz) izan beharko dira.

5.2.9. Joko zelaiko segurtasunaz (Jz), berriz, Estatuko epailea arduratuko da, zeinak dagozkion segurtasun gidetako jarraibide Espainiako Arku-tiroko Errege Federazioak argitaratuei jarraituko baitie. Halaber, aktan jasota utzi beharko da nor arduratu den joko zelaiko segurtasunaz.

5.2.10. Federazioak sinestamendu ofizialak jaulkiko ditu Eskola Kiroleko 2017-2018 kanpainan izena emandako pertsona guztientzat, epaile, zuzendari, ordezkarri, kazetari nahiz teknikari guztientzat.

5.2.11. Lehiaketa antolatzaileek zainduko dituzte joko zelairako sarbideak, eta behar bezalako sinestamenduarekin datozen pertsonen baizik ez diete utziko sartzen.



▶ Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
▶

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

5.2.12. Eskola kirola garatuko da Arabako Arku-tiroko Federazioaren Eskola Kiroleko Batzorde Eskuordeak onartu eta Arabako Foru Aldundiari igorritako egutegiaren arabera.

5.2.13. Egutegian aldaketak egitekotan, behar bezala baimendu beharko ditu Arabako Arku-tiroko Federazioak, idatziz, eta, gutxienez, jarduera baino bi egun balioudun lehenago; Arabako Arku-tiroko Federazioak, halaber, Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko dio, ezinbesteko behar bezala justifikatuak tarteko direnean izan ezik.

5.2.14. Zilegi da eskola kiroleko jarduerak eta federazio lehiaketa ofizialak egun berean izan daitezen, baina ez ordu berean. Ez, ordea, 3D basoko ibilbideak direnean, zeren, orduan, eskola kiroleko parte hartzaileek beren lehiaketa espazio propioa izango baitute, berentzat egokitua.

### 5.3. Jarduera nola gauzatu behar den

5.3.1. Arabako lurralde historikoan gauzatzen diren arku tiroko lehiaketetarako indarrean dagoen araudi ofizial bera izango da eskola kirolari aplikatzekoa den lehiaketa araudia. Arau horrekin gatazkan sartuz gero, abian den denboraldiko eskola kiroleko programako araudia izango da lehen.

5.3.2. Batzorde tekniko izendatuak sinatutako aktari, ituen zozketa eta parte hartzaileek lortutako puntuazioak erantsiko dizkiote antolatzaileek. Agiri horiek, Arabako Arku-tiroko Federazioari helaraziko dizkiote, sailkapena eta plusmarkak osa ditzan eta haiek artxibatu eta kontsultarako prestatzeko. Agiri horiek lehiaketa egin eta hurrengo asteleheneko 9:00ak baino lehenago igorri beharko dituzte. Horretarako, Arku-tiroko lehiaketak kudeatzeko IANSEO izeneko softwarearen bidez sortutako lehiaketa artxiboa bidaliko da, software horren Arabako egokitutako bertsioaren bidezkoa, alegia.

5.3.3. Sailkapena Arabako Arku-tiroko Federazioaren web orrian argitaratuko da, eta Twitter bidez zabalduko da argitarapenaren berri (@FedeAlavaArco).

5.3.4. Eskola kiroleko jarduera gauzatu bitartean diziplina gorabeherarik izanez gero, jardueraren ardura duen batzorde teknikoko presidenteak hala jakinaraziko du aktan, eta Arabako Arku-tiroko Federazioko diziplina batzordeari helaraziko.

5.3.5. Kasu horretan, hau aplikatuko da: 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketetako diziplina araubideari buruzkoa, zeina EHAOn argitaratu baitzen, 2013ko irailaren 30ean, 186 zenbakiko alean.

### 5.4. Lehiaketa sistema

5.4.1. Sailkapen bat egingo da Arabako Arku-tiroko Federazioari igorritako puntuazioekin, lehiaketa jokatu eta 72 ordu baino lehen, benjaminen kategorian izan ezik.



#### 5.4.2. Sailkapena osatzeko sistema hau izango da:

- Lehenengoari: +12 puntu.
- Bigarrenari: +10 puntu.
- Hirugarrenari: +8 puntu.
- Laugarrenari: +6 puntu.
- Parte hartzaileari: +4 puntu.
- Lehiaketara agertu ezean, ez da punturik emango, baina penalizatu ere ez (0 puntu).
- Selektzio ofizialekin parte hartzen bada beste jarduera batean, jarduera horretan lortutako puntuazioa erabiliko da rankinga egiteko, betiere modalitate berekoa bada, osterantzean ez baita punturik emango.

#### 5.4.3. Eskola Kiroleko Arabako Liga:

5.4.3.1. Lau jardunaldi izango ditu, eta lehenengo hiru onenetako puntuak hartuko dira kontuan.

5.4.3.2. Areto barneko eta aire libreko jardueretan, programa honetako beronetako multzokatzeak baliatuko dira, 5.6 paragrafoan ezarritakoak (Multzoak).

5.4.3.3. 3D basoetako ibilbideetan, kolore zuriko jaurtiketa-gune bakar batetik egingo da jaurtiketa; gune hori itutik bost (5) eta hogeita bost (25) metro bitarteko tartera egongo da.

5.4.3.4. Dominak emango dira lortutako sailkapenaren arabera.

5.4.3.5. Puntuetan berdinketa gertatuz gero, areto barneko lehiaketan nahiz aire librekoan, Geziaren Batez Besteko Balio Guztirakoarekin (GB) hautsiko da berdinketa, eta 3D basoko ibilbidean, lehiaketa indizearekin (LI).

#### 5.4.4. Arabako Eskola Txapelketa Areto barnekoa eta Aire librekoa, berriz, honela egingo da:

5.4.4.1. Lehenengo zatia: sailkapen serie bat izango da, eta, ondoren, banan-banako kanporaketak, final laurdenetatik hasita.

5.4.4.2. Bigarren zatian, klubuen taldeen arteko lehiaketa izango da, talde bakoitza hiru kidek osatzen dutela. Taldeen ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- a. Taldea osatzen duten kideen adinen batura ez da izango 40 urte baino gehiago.
- b. Talde bakoitzak gehienez ere arku bakarria edukiko du tiroa zehazteko gailuarekikoa.
- c. Jaurtitzeko distantzia hamabost metro izango da, areto barnean, eta hogeita bost, aire librean.

5.4.4.3. Klubeko taldean hiru pertsona izan ezean, beste klub batzuetakoekin osatuko da taldea. Hiru kide lortu ezean, taldeko kide bakoitzak beste gezi bana jaurtiko du.

5.4.4.4. Hirugarren zatian, talde mistoen arteko lehiaketa bat izango da. Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- a. Taldean ezingo dira izan bi kadete edo tiroa zehazteko gailuarekiko bi arku.
- b. Itiak eta distantziak taldeen arteko lehiaketako berberak izango dira.



5.4.4.5. Klubek antolatzaileei jakinarazi beharko diete nola dauden osaturik beren taldeak banan-banako kanporaketak hasi baino lehen.

5.4.4.6. Guztiak guztien kontrako sistema bat erabiliko da.

5.4.4.7. Maila eta kategoria bakoitzeko banan-banako kanporaketetan, lehenengo hirurei domina bana emango zaie, bai eta taldeen arteko lehiaketan eta talde mistoen arteko lehiaketan irabazle ateratzen diren taldeei ere.

5.4.5. 3D basoko ibilbideko Arabako Eskola Txapelketak honela egingo dira:

5.4.5.1. Kirolari multzoak egingo dira 3D ibilbideko eskola ligan lortutako Geziaren Batez Besteko Balio Guztirakoaren arabera.

5.4.5.2. Hamabi (12) ituko 3D ibilbide batean egingo da jaurtiketa, eta gezi bakarra jaurtiko da ituko. Lortutako puntuazioarekin osatuko da sailkapena, eta horren arabera antolatuko final laurdenetako banan-banako partidak. Era berean, klub bakoitzaren puntuaziorik altuenen batura hartuko da aintzat klubetako taldeen dominak eskuratzeko.

5.4.5.3. Final laurdenetan, lau itu ezarriko dira (itu multzo bakoitzeko bana) distantzia ezezagunetara, eta kirolari bakoitzak gezi bana jaurtiko du, txandaka. Puntu gehien lortzen duenak irabaziko du partida.

5.4.5.4. Maila eta kategoria bakoitzeko banan-banako kanporaketetako lehenbiziko hiru pertsoneri domina bana emango zaie.

5.4.6. Sari berezia izango dute hiru ligetan eta teknifikazio jardunaldietan gehien parte hartu duten kirolariek, eta teknifikazio jardunaldian emango zaie.

5.4.7. Jardunaldiko Kirolari Onenaren ziurtagiria emango zaio geziaren batez besteko balio handiena lortu duen kirolariari, senezkoa eta zehaztasunezkoa bereiziz.

5.4.8. Arabako Arku-tiroko Federazioak, urtean antolatutako jardunaldi bakoitzeko, Arabako Foru Aldundiak jardunaldi antolatu bakoitzeko ematen duen dirulaguntzaren % 50a aurreratuko die klubei, eta gainerako % 50a urtea amaitzean, eta beste 50 euro ere bai gauzatutako jardunaldi bakoitzeko. Jardunaldia ez bada gauzatzen kausa behar bezala justifikatu batengatik, erantzukizuna duen entitateak itzuli egin beharko ditu jardunaldia antolatzeagatik eskuratutako zenbatekoak, eta kausa behar bezala justifikatu batengatik bada, antolatu gabe utzitako jardunaldiarengatik jasotako diru zenbatekoak eta beste 50 euro itzuliko beharko dizkio Arabako Arku-tiroko Federazioari.

5.4.9. Liga eta txapelketa jardunaldi bakoitzean anoa bat izango da, ur eta frutazkoa edo antzekoa.

## 5.5. Araudi aldaketak

5.5.1. Araudi honetan aldaketaren bat eginez gero, jakinarazi egingo zaie Arabako Arku-tiroko Federazioan izena emandako klub guztiei, epaileei nahiz Arabako Foru Aldundiari.

5.5.2. Era berean, Arabako Federazioaren web orrian argitaratuko da dena delako aldaketa hori.

## 5.6. Multzoak

ESTANDARRA, OSATUA ETA ERREBIRATUA					
MOTA	ADINA	ARETOA		720 SERIEA	
		Distantzia metrotan	Diana: cm Ø	Distantzia metrotan	Diana: cm Ø
BENJAMIN AURREKOAK	8 urte arte	12x2	122	18x2	122
BENJAMINAK	10 urte arte				
KIMUAK	12 urte arte	18x2	80R5.	30+18	122+80R5
HAURRAK	14 urte arte			40+30	
KADETEAK	17 urte arte			40 edo bertikala	
<b>Gezi kopurua.</b>		<b>30+30 gezi</b>		<b>36+36 gezi</b>	




## BILUZIK, SENEZKOA ETA LONG BOW

KATEGORIA	ADINA	ARETOA		720 SERIEA	
		Distantzia metrotan	Diana: cm Ø	Distantzia metrotan	Diana: cm Ø
BENJAMIN AURREKOAK	8 urte arte	12x2	122	18x2	122
BENJAMINAK	10 urte arte				
KIMUAK	12 urte arte				
HAURRAK	14 urte arte	18x2	60 Cpo.	30+18	80+60 Cpo.
KADETEAK	17 urte arte				40 Cpo.
BERRIAK 1. URTEAN	9 urtetik 17 urtera	15x2	122	15x2	122
<b>Gezi kopurua.</b>		<b>30+30 gezi</b>		<b>36+36 gezi</b>	

]]\* Adinean, adierazitako urtea barne da.


\*\* Osatua, 80R5 ituaren barnea izango da hamar (X).




Osatua (10 – 1):  
122: 122 cm Ø  
80: 80 cm Ø  
40: 40 cm Ø



80 cm Ø murriztua  
al 5 (10-5): 80R5



Bertikal (10-6):  
Osatua  
Bertikala – C.  
Errebiratua



Eremua (6 – 1):  
80 Er.: 80 cm Ø  
60 Er.: 60 cm Ø  
40 Er.: 40 cm Ø